

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Busturialdeko Ur Partzuergoa**

**Consortio de Aguas de Busturialdea**

**2011**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA .....	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	10
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA .....	10
III.2 LANGILERIA .....	11
III.3 KONTRATAZIOA .....	11
III.4 BESTE ALDERDI BATZUK .....	13
IV. FINANTZA ANALISIA .....	14
V. URTEKO KONTUAK .....	17
ALEGAZIOAK .....	21
0. ABREVIATURAS .....	27
I. INTRODUCCIÓN.....	29
II. OPINIÓN.....	30
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	30
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES .....	31
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	32
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD .....	32
III.2 PERSONAL .....	33
III.3 CONTRATACIÓN .....	33
III.4 OTROS ASPECTOS .....	35
IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....	36



<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>39</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>43</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	43
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	43
A.3 Tasas y otros ingresos .....	44
A.4 Ingresos por subvenciones .....	45
A.5 Gastos de personal .....	47
A.6 Compras de bienes y servicios.....	48
A.7 Saldos extrapresupuestarios.....	48
A.8 Pasivos financieros .....	49
A.9 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	49
A.10 Análisis de contratación .....	50
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>51</b>

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 17a  
Vitoria-Gasteiz, 17 de julio de 2013



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 0. LABURDURAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
1463/2007 ED	1463/2007 Errege Dekretua, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzeko erregelamendua onesten duena.
15/2010 Legea	15/2010 Legea, 3/2004 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak ezartzeko dena.
235/2004 FD	235/2004 Foru Dekretua, Bizkaiko udal erakundeen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten dituen.
3/1995 FA	3/1995 Foru Araua, Bizkaiko Udalaz Gaindiko Erakundeak Arautzen dituen.
8/2010 LED	8/2010 Legegintzako Errege Dekretua, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartu zituena.
9/2005 FA	9/2005 Foru Araua, Bizkaiko Toki Ogasunei buruzkoa.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskadiko Autonomia Erkidegoa.
EAOL 2011	39/2010 Legea, 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EPOE	7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua.
EUA	Edateko Uren Araztegia
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
HUA	Hondakin-Uren Araztegia
LSP	Lurraldeko saneamendu plana
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
PGN	Publizitaterik gabeko negoziatua
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TATB	781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen gaietan indarreko xedapenen Testu Bategina.
Udalhitz	Tokiko euskal erakundeen lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Busturialdeko Ur Partzuergoaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta aurrekontuen likidazioa besarkatzen ditu.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Partzuergoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Partzuergoa 1991n sortu zen eta EAEk, Bizkaiko Foru Aldundiak eta 15 udalek osatzen dute eta horiei guztiei uren hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematen dizkie:

	Biztanleria 1/01/2011		Biztanleria 1/01/2011
Ajangiz .....	458	Ibarrangelu.....	636
Arratzu .....	389	Kortezubi .....	430
Busturia .....	1.776	Mendata .....	381
Ea.....	896	Mundaka .....	1.939
Elantxobe .....	423	Murueta.....	308
Foru.....	979	Muxika.....	1.477
Gautegiz Arteaga .....	879	Sukarrieta.....	354
Gernika-Lumo.....	16.442		
<b>BIZTANLERIA GUZTIRA</b>			<b>27.767</b>

Partzuergoak nortasun juridiko propioa du eta horren izatea eta antolamendua 2004an onartutako estatutuek arautzen dute, 3/1995 FAra egokituz. Partzuergoaren atal gorena Kontseilu Orokorra da eta horren baitako dira Batzorde Exekutiboa, lehendakaria, lehendakariordea eta zuzendari kudeatzailea. Batzorde Exekutiboak 8 osagai ditu: aipatutako 3 atal pertsonalak, EAEren ordezkaria, Aldundikoa, Gernika-Lumoko Udalaren bat eta gainerako udalena, bi.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### AURREKONTUA

1. Partzuergoak 390.543 euroren gastu arruntak egin ditu, horretarako aurrekontu krediturik izan gabe.

#### LANGILERIA

2. Artekaritza egitekoak (ekonomia-finantza eta aurrekontuaren kudeaketaren kontrola eta fiskalizazioa, eta kontabilitatea) ez dira egiten eta diruzaintzakoak, berriz, diru-bilketa barne hartzen dutenak, lan kontratupeko langileriak egiten ditu araudia urratuz (EPOEren bigarren Xedapen Gehigarria), Toki Korporazioetan estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetzen baititu.

#### KONTRATAZIOA

3. Sukarrieta-EDAR Lamiaran kolektoreko lana 9,2 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen 2008an eta aldaketa bat egin zitzaion; gainera, obra osagarriak behar izan zituen (tuneleko ipar ahoan sarrerak gaitzea, EDARerako irteeran), obra nagusiaren lehiatzaileari 2011 eta 2010ean, hurrenez hurren, 715.834 eta 3,6 milioi euroan esleitutakoak. Horregatik guztiagatik, obren kostua termino homogeneotan 14,8 milioi eurorena izan zen, esleitutakoa baino % 61 bat garestiagoa; desbideratze horrek kontratazioaren arautegiko lehia printzipioak urratzen ditu kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratzen baitu. Gainera, 2010ean esleitutako obra osagarriak datu hori baino lehenago hasi ziren gauzatzeko, obra nagusiaren garapenak hala eskatzen zuelako. (B1 akatsa A.10 eranskinean).
4. Argindarraren hornidurak 2011n 222.745 euroren kostua eragin zuen eta Partzuergoak ez zuen nahitaezkoa den kontratazio prozedura bideratu; horrek publikotasun eta lehia printzipioak urratzen ditu.

Epaitegi honen ustetan, Partzuergoak, aurreko lau idatz-zatietan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen 2011ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aurrekontuzkoa Diruz. geldik.	Ondarekoa Aktiboa	Pasiboa	Funts propioak
<b>Sortutako eskubideak/(obligazioak), 11.12.31n erregistratu gabeak:</b>				
A.3 Bermeoko Udalarekiko hitzarm: 2012ko martxoaren 2an aldatua.....	(224)	(89)	135	(224)
A.3 Hornidura eta estolderia tasa 2011ko azken hiruhilekoa.....	-	475	-	475
A.4 LSPko inbertsioetarako diru-lag.-kobratzeko saldoaren zuzenketa .....	133	133	-	133
A.4 11/12/31n erregistratzeko dauden desjabetzeak.....	(402)	-	402	(402)
A.7 Enpresek egindako lanak eta 2011ko beste gastu batzuk, erreg. gabe ....	(520)	-	148	(148)
<b>Beste batzuk:</b>				
A.7 Aurrekontua kanpoko saldoen erregularizazioa .....	(191)	(68)	123	(191)
A.7 Aplikatzeko dauden sarrerak: 11/12/31n aplikatu gab. saldoak erregul....	-	(218)	(218)	-
A.4 Geldikina hainbat inbertsiori ez lotzea .....	505	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>(699)</b>	<b>233</b>	<b>590</b>	<b>(357)</b>

2. Partzuergoak 2004an ibilgetuaren balorazioa egin zuen eta idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik egiten. Horregatik guztiagatik, ez dezakegu zehaztu ea ibilgetuko kopuruek 11/12/ 31n Partzuergoaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten.

Amortizaziorako zuzkidurak ere (87.000 euro 2011n) ez dira ekitaldi bakoitzeko altak eta bajak aintzat hartuta birkalkulatu eta kopurua aldagabe dago 2007az geroztik. Bestetik, kapital diru-laguntzak (9,6 milioi 2011n), ondare kontabilitatean urteko sarrera modura erregistratzen dira, foru araudiak onartzen duen irizpidea izaki (235/2004 FD).

3. Honekin baterako Kontu Orokorrak ez du nahitaezkoa den Konpromiso Kredituen Egoera barne hartzen eta eskualdeko Saneamendu Plana finantzatzeko EAErekiko hitzarmena gauzatzetik eratorritakoak zehazten ditu, hitzartutako sarrera eta gastuak emanez, 5,5 eta 4,6 milioi eurorenak, hurrenez hurren (A.4 eranskina), eta 2011n Bizkaiko Foru aldundiarekin izenpetutako hitzarmenekoak Gernika-Lumoren saneamendua osatzeko (datozen ekitaldietarako 8,3 milioi euroren sarrera eta gastuak).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan azaleratutako akatsak salbuetsita, Partzuergoaren Kontu Orokorrak –Kontseilu Orokorrak onartzeko duena- alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2011ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zehatza eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2011ko ekitaldirako aurrekontua 2011ko maiatzean onetsi zen behin-betiko; ordea, arautegiak (10/2003 FAREN 15. art.) urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du. Horrez gainera, aurrekontu egindako diru-sarrerak arruntak 126.552 euro txikiagoak ziren aurreikusitako izaera bereko gastu eta amortizazioak baino eta horrek aurrekontu-arautegia urratzen du (10/2003 FAREN 14.6 artikulua).
- 2011ko Kontu Orokorra 2012ko uztailearen 31 baino lehenago onartu behar zatekeen (10/2003 FAREN 63.4 artikulua); ordea, txosten hau idatzi dugun datan aurkeztu gabe dago Kontseilu Nagusiari.
- 2011ko aurrekontuari egin zitzaion aldaketa nagusia izan zen EAetik jasotzeke zeuden diru-laguntzak (14,9 milioi euro, hasierako aurrekontua laukoiztua) diru-sarrera gaikuntza modura txertatzea, Saneamendu Plana egikaritzeko. Hitzarmena 2003tik aurrerakoa da eta urte horretan zegozkion konpromiso kredituak onartu behar ziratekeen.
- Geldikinak 2011ko aurrekontuari gehitzeak Saneamendu Planaren desjabetzeetara emandako kredituak barne hartzen ditu, 1,3 milioi eurorenak, 2007tik datozenak. Aurrekontu arautegiak mugatu egiten ditu birtxertatzeak (10/2003 FAREN 32.4 artikulua) eta honenbestez, egokiagoa zatekeen kreditua urteko jarraituetan zati-banatzea.
- Hornidura eta estolderia tasek eragindako diru-sarrerak ekitaldian zehar kutxa irizpidea baliatuta erregistratzen dira eta itxieran, gainera, abenduaren 31n kobratzeko dauden ordainagiriak erregistratzen dira. Egokiagoa zatekeen diru-sarrerak hiruhileko errolden zenbatekoaren arabera aitortzea eta bidenabar, ordainagiriak baliogabetu edo zuzentzetik eratorritako aldaketak ere erregistratzea.
- Ekitaldi itxieran kobratzeko dauden saldoei dagokienez, komenigarria litzateke abenduaren 31ko dagokion xehapen artxiboa jaulki eta gordetzea, kontularitzako saldoen euskarri datekeena. Horrez gainera, kontularitzako saldoak diru-bilketako sistema lagungarriko saldoekin eta eragile exekutiboak eskuan dituen ordainagirien xehetasunekin aldi behin alderatzea komeniko litzateke.
- 2011ko likidaziotik eskuratutako eragiketa ez finantzarioen emaitza negatiboa da egindako inbertsioak direla-eta, berezko baliabideekin finantzatzen baitira. Desoreka honek Berrorka plan bat egitea eskatzen du, Kontseilu Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak onar dezaten.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.2 LANGILERIA

- 2011ko martxoan Partzuergoak aldi baterako langile bat kontratatu zuen, 2012ko abuztu bitartera arte lanean aritu zena, inongo deialdi eta hautaketa prozesurik bideratu gabe; honenbestez, urratu egin dira kontratazio mota honi ezargarriak zaizkion publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak.
- Partzuergoak aurrekontuarekin batera, urtero aurrekontu plantilla ere onartzen du; honek LZk agintzen duen informazioa ere jasotzen du, lanpostu bakoitza betetzeko beharrezko diren betekizunei dagokiena salbu (EFPLren 14. artikulua). Partzuergoak 2011n aurreko urteko plantilla aldarazi zuen eta bi lanpostutan bi ordainsari mailaren igoera barne hartu zuen; igoera horietarako ezinbestekoa zen Kontseilu Nagusiaren berariazko onespina eta balorazio aldaketaren justifikazioa.
- 3 ofizialek eta peoietatik 6k hileko osagarri finkoak jaso zituzten toxikotasun eta zaintza lanen kontzeptuan, ordaindu beharreko zenbatekoak zehaztuko dituen ebazpenik batere ez dagoela. Onuradunetarik bik zaintza lanak 2011ko martxoan hasi zituzten. Lehendakartzaren dagokion dekretuan ordainsari kontzeptu hauen likidazioa jaso behar litzateke.
- Kontseilu Nagusiak 2008ko azaroan Udalhitz 2008-2010era atxikitzea onartu zuen eta ebazpen hori aldizkari ofizialetan eman behar ziokeen publikotasuna ( EFPLren 102.3 artikulua).
- 2011ko ekainean enplegurako eskaintza publikoko 12 lanpostuak deitu zituzten, aurrekontuarekin batean 2011ko apirilean onartu zena; ordea, prozesua 2012ko martxoan bertan behera gelditu zen. 2011ko EAOLren 23. artikulua enplegurako eskaintza publikoan barne har zitekeen lanpostu kopurua mugatu zuen, urte horretarako langileen birjarpen tasaren % 30era alegia.

### III.3. KONTRATAZIOA

Indarrean zeuden edo 2011n izapidetutako 7 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zuen (ikus A.10):

- Bi kontraturen lizitazioa (1 eta 7 zenbakiak), 9,3 milioi euroan esleitutakoak, EHAAn eta DOUEn eman zen argitara, ez, ordea, BOEn (A1 akatsa).
- Hiru zerbitzu-kontraturen klausula-agiriek (1etik 3ra bitarteko zenbakiak), 5,5 milioi euroan esleitutakoak, esleipen irizpide modura kontratatu beharreko zerbitzuaren funtzionaltasunekin loturarik ez zuten alderdiak balioztatzen zituzten, hala nola, lehiatzaileek kalitate ziurtagiriak izatea edota proiektuari lotutako enpresaren eta langileen eskarmentua (A2 akatsa).
- Aztertu diren 7 kontraturen pleguek irizpide orokorrak barne hartzen zituzten, zehaztugabeak, balioztatuko ziren alderdi zehatz eta objektiboak xehatu gabe, hala nola, hobekuntzak, eraikuntza proiektu zein eman beharreko zerbitzuari buruzko memoria idaztea, ekarritako ekipa eta materialen kalitatea edota instalakuntzen ezagutza (A3 akatsa).

- Guztira 5,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontraturen pleguek (1, 2 eta 6 zenbakiak) merkatze ehuneko batetik behera eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte (A4 akatsa).
- Guztira 29,1 milioi euroan esleitutako 5 kontraturen iraupena (3, 4, 5, 6 eta 7 zenbakiak) esleipen urteko aurrekontuaren indarraldiaz haratago luzatu zen; horren aurrean, Kontseilu Nagusiak zegozkion urteanitzeko diru-izendapenak onartu behar zituzkeen (A5 akatsa).
- Guztira 30 milioi euroan esleitutako 6 kontratutan (2tik 7ra bitarteko zenbakiak) balio judizioak eskatzen dituzten faktoreei buruzko txosten teknikoek ez zituzten behar bezala arrazoitu emandako puntuaketak, ez baitzituzten eskaintzen balorazio ezberdinak justifikatzen zituzten alderdi objektiboak bereizten (B2 akatsa).
- Kontratazioko araudiak gehiengo hainbat epe finkatzen ditu kontratua esleitu, gauzatu eta egikaritzea hasteko. Muga horiek gainditu egin dira bi obra nagusienetan (4 eta 5 zenbakiak), 23 milioi euroan esleitutakoak (B1 akatsa).
- Kontsortzioak lehiatzaileei esleipenak jakinarazi zizkien, baina ez zien publikotasunik eman aldizkari ofizialetan 2 espedienteri (1 eta 5 zk.), 17,9 milioi euroren esleipena egiten zutenak (B4 akatsa).
- Bi kontratutan (3 eta 4 zk.), 9,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, exekuzioa betetzeko epea baino haratago luzatu da, epe horretarako luzapenik batere gauzatu gabe. Gainera, lau zenbakiko kontratuan aldaketa eta luzaketa behin hasierako egikaritzea epe amaitua zela onartu ziren (B5 akatsa).
- 6 EUA eta 6 HUA kudeatzeko kontratuaren lizitazio iragarkiak urteko baten aurrekontua adierazten zuen, kontratuak zirauen hirurtekoari zegokiona adierazi beharrean (SPKLren 76.1 artikulua). Gainera, behin-betiko bermea urteko zenbatekoa aintzat hartuta kalkulatu zen, kontrataturiko zerbitzuen zenbateko osoa hartu beharrean; akats hau bera egin da 2 zenbakiko espedienteetan (SPKLren 83. art.). Azkenik, 1 eta 2 zenbakiko espedienteetan ikusi da hileroko ziurtagiriak ez direla formalki onartzen (C akatsa).
- Desjabetzeetan laguntza emateko kontratuaren pleguak, 353.095 euroan esleitutako eta 4 urtetan egiteko aurreikusitako epea zuenak, zehaztasun gehiago eman gabe esaten zuen ez zirela prezioak berrikusiko; alabaina, araudiak desegokitasuna arrazoitzeko agintzen du (SPKLren 77.2 artikulua) (C akatsa).

Gainera, esan behar dugu Kontsortzioak ez dituela obra egitasmoak gainbegiratzeko, nahitaezkoa dena (APKLTBren 128. art. eta SPKLren 109. art.).

### Beste erosketa batzuk

- Estolderia sarea libratzeko zerbitzuen 13 ordainagiriak, kontratugile berarekin guztira 81.016 eurorenak, kontratu txiki modura edo prozedura negoziatu bitartez izapidetu



ziren, horien izaera homogeneoa aintzat hartuta, komenigarria litzateke osorik esleitzea prozedura irekia baliatuta.

- Proiektuak erredaktatzeko enpresa batek sei ordainagiri jaulki ditu 2011ko martxoaren 31 eta apirilaren 8 bitartean, guztira 45.000 euroren zenbatekoan, bereizirik izapidetu zirenak; ordea, guztira egiten zuten zenbatekoa aintzat hartuta, egokiagoa zatekeen prozedura negoziatu bidez esleitzea, gutxienez hiru eskaintza aurkezteko eskatuz.

#### III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

- Kontsortzioak 2010eko urtarrilaren 1ean Bermeoko Udalarekin hitzarmena izenpetu zuen udalerrian edateko ura hornitzeko sare nagusia osotasunean kudeatzeko; kontratuan, horniduraren prezioa 0,52 euro/m<sup>3</sup>-an ezarri zen. Bertan aitortu zen, gainera, kopuru hori zerbitzuaren kostua baino handiagoa zela eta honenbestez, Kontsortzioak Udala konpentsatuko zuela obrak eginez; obra horiek ez ziren ez zehaztu, ezta zenbatetsi ere.

Bermeoko Udalak 2010eko abuztutik aurrera partzuergoko fakturak ordaintzeari utzi zion eta zorrak 1,3 milioi euro egin zituen. 2012ko martxoan aldean arteko akordioa lotu da eta fakturatu beharreko zenbatekoa 0,37 euro/m<sup>3</sup>-an ezarri du, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eragin indarrarekin; horrek zorra 342.813 euroan murriztu du.

Prozesu honetan zera ikusi dugu:

- Bai hasierako tarifak, bai 2012an ezarritakoak, kopurua justifikatuko duten nahitaezko txosten tekniko-ekonomikoak bideratu gabe finkatu dira.
- 2012ko martxoko akordioak, nolana den ere, Bermeoko Udalak ez ordaintzetik eratorritako berandutza interesak zenbatetsi behar zituzkeen.
- Kontsortzioaren Batzorde Beterazleak 2011ko abenduan urtebeterako 880.000 euroren mailegua kontratatzea onartu zuen, abenduaren 22an gauzatu zena. Erabaki hau 2012ko urtarrilean berretsi zuen Kontseilu Nagusiak. Kontsortzioaren estatutuek 27. artikuluan diote eragiketa hauek Kontseilu Nagusiaren egiteko direla.
- Kontratazio espedienteen egikaritzan araudiak finkatutako ordainketa epeak urratu dira kasu guztietan (SPKLren 200.4 artikulua eta Xedapen Iragakor 8.a), Saneamendu Planeko obren kontzeptuan diru-laguntzak kobratzearen baitan egoteagatik. Kontsortzioak 2011ko abenduan diruzaintzako eragiketa bat gauzatu zuen. Idazkari-artekariak ez zituen nahitaezko hiruhileko txostenak egin (15/2010 Legearen 4.3 artikulua), ordainketa epeak betetzeari buruzko Kontseilu Nagusiari zuzendutakoak.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Kontsortzioak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan		
	2009(*)	2010(*)	2011
Azken kontsumitzaileen hornidura eta saneamendu tasak .....	3.180	2.604	2.279
Bermeoko Udalari uraren hornidura .....	216	782	861
Bestelako sarrerak (3. kap.) .....	251	269	252
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	17	-	-
<b>A. Diru-sarrera arruntak (1etik 5erako kap.) .....</b>	<b>3.664</b>	<b>3.655</b>	<b>3.392</b>
Langile gastuak (1.kap.) .....	1.033	1.019	1.072
Ondasun arrunten erosketak (2. kap.) .....	2.263	2.305	2.286
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	-	3	5
<b>B. Funtzionamendu gast. (1etik 4ra bit. kap.) .....</b>	<b>3.296</b>	<b>3.327</b>	<b>3.363</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>368</b>	<b>328</b>	<b>29</b>
-Finantza gastuak (3. kap.) .....	54	24	27
<b>Emaizta arrunta .....</b>	<b>314</b>	<b>304</b>	<b>2</b>
-Mailegua amortizatzea .....	120	120	120
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>194</b>	<b>184</b>	<b>(118)</b>
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	5.241	13.567	9.643
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	6.103	14.505	10.320
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza .....</b>	<b>(862)</b>	<b>(938)</b>	<b>(677)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.) .....	(548)	(634)	(675)
<b>Diruzaintza geldikin likidoa: .....</b>	<b>2.605</b>	<b>1.651</b>	<b>420</b>
<b>Zorpetzea 12.31n .....</b>	<b>2.730</b>	<b>2.610</b>	<b>2.490</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** Azpimarratzekoa da azken kontsumitzaileei eragindako tasek % 28ko beheraldia egin dutela, horixe izanik Kontsortzioaren diru-sarrera iturri nagusia; horren arrazoa 2010eko urtarrilean onartutako tarifa aldaketa izan da. 2011ko martxoan % 2ko igoera onartu zen; ez du, baina, urte horretan diru-sarrerek behera egitea eragozten, 2011ko sarrera modura erregistratzen diren lau hiruhilekoetatik bitan duelako eragina. 2012ko ekainean aldaketa handiagoa gertatu zen, kontzeptu honen izenean diru-sarrerak gehituko dituen.

Bermeoko Udalari emandako zerbitzuei dagokienez, 2012ko martxoan Kontsortzioak 2010 eta 2011n eragindako prezioa araupetzea onartu zuen eta honenbestez, kontzeptu honek urtean eragindako diru-sarrerak, hurrenez hurren, 225.527 eta 256.332 euroan murriztu behar dira.



**Funtzionamendu gastuak:** Langile gastuei egonkor eutsi zaie soldata murrizketek izandako eraginaren ondorioz. Erosketei dagokienez, aintzat hartu behar da 2011n ez zirela urte horretako gastuak erregistratu, 519.860 eurorenak (ikus A.7).

**Aurrezki gordina eta emaitza arrunta:** 2009an diru-sarrera arruntek finantza zamari aurre egiteko behar hainbateko baliabideak ekarri zituzten; are gehiago, inbertsioak finantzatzeko behar hainbateko aurrezki garbia ere sortu zen. 2010ean egoerari eutsi egin zaio urte horretako tarifen murrizketaren eragina hein batean bakarrik jaso delako eta Bermeoko Udalari diru-sarrera berriak fakturatu zaizkiolako. 2011n tarifak murrizteak Udalaren diru-sarrera nagusia nabarmen urritzea ekarri du eta horrek emaitza arrunt negatiboa sortu, kontularitzako datuak Bermeoko Udalarekin adostutako araupetzearekin eta kontularitzako erregistrorik gabeko gastuekin zuzentzen badira.

**Kapital eragiketen emaitza:** Hirurtekoan egindako inbertsio nagusiak (30,9 milioi euro) Saneamendu Planean oinarritzen dira, nahiz kopuru txikiagoko inbertsioak ere egiten diren hornidura sarean eta horietarako foru eta erkidegoko administrazioek laguntzak ematen dituzte. Saneamendu Planeko hainbat inbertsio ez ditu EAEk finantzatu eta horri horniduran egindako inbertsioak gehituta, hirurtekoan kapitalezko eragiketetan 2,5 milioi euroren defizita eragin dute.

**Saneamendu Plana:** Eskualdeko saneamendu sarean inbertsioak egin dituzte estatuko administrazioak (EDAR Lamiran) eta foru administrazioak (Gernika-Lumo eta Bermeoko saneamenduak). Horrezaz gain, EAEk eta Kontsortzioak 2003an Muxikatik EDAR berriraino hoditeria nagusia eraikitzea adostu zuten. Hitzarmen honek aurreikusten zuen proiektuak idatzi eta obrak egikaritzeko kostua oso-osorik EAEk finantzatzeko zuela 35,1 milioi eurora arte, eta Kontsortzioak desjabetzeak eta obra zuzendaritzak hartuko zituela bere gain. Lanek 73,6 milioi euro inguruko kostua dute eta sei zatitan banatu ziren; horietako hiruren egikaritzea abian da eta hitzarmenean aurreikusitako finantzaketa xahutuko dute osorik; horren aurrean, Kontsortzioak beharrezkoa den gainerako finantzaketa aurkitu beharko du, 35 milioi euroren zenbatekoan. Kontsortzioak bere gain hartutako obligazioei dagokienez, 2007an 3 milioi euroren mailegua kontratatu zen eta 2011ko abenduaren 31ra bitartean 1,8 milioi euroren desjabetzeak eta obra zuzendaritzan laguntza emateko gastuak egin ziren. Lamiarango EDARa 2013an amaituko dela aurreikusi da eta data horretarako amaituak izango dira jada hodi biltzailearen sei atalak (ikus A.4).

**Diruzaintza geldikina:** Hasierako geldikina, nagusiki, 2007an 3 milioi euroren mailegua eskura izateak sortu zuen, Saneamendu Planeko inbertsioak finantzatzeko erabili ahala murriztu dena. Fiskalizazioan azaleratutako doiketen ondorioz, geldikin likidoa negatiboa izatera aldatuko litzateke, 783.245 euroren zenbatekoan, defizita finantzatzeko etorkizuneko aurrekontuen baliabideak beharrezko izanik.



**Zorpetzea:** 2007an Saneamendu Plana zati batean finantzatzeko kontrataturiko 3 milioi euroren mailegua 25 urtetan amortizatuko da, urteko 120.000 euro, alegia.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Eragiketa ez finantzarioen emaitza negatiboa izan da 3 urteetan egindako inbertsio garrantzitsuen ondorioz.

**Ondorioa:** 2010ean onartu zen tarifa murrizketak eragiketa arrunten desoreka eragin zuen eta ondorioz, ezin zaie zerbitzuaren kostuei ere aurre egin. 2012an onartutako tarifa aldaketak diru-sarrerak gehituko ditu eta 2011ko abenduaren 31n diruzaintza geldikin negatiboa finantzatu beharko du. Nolanahi den ere, bai sarreretan, bai gastu arruntetan ekintza zehatzak jasoko dituen plana mamitu behar du, aurrezki garbia gehitu eta maileguaren muga-egunei, inbertsioak berregiteko beharrei eta 2013an inbertsio berriak abiarazteak sor ditzakeen etorkizuneko funtzionamendu gastuei aurre egiteko bide emango duena.

Eskualdeko Saneamendu Planaren exekuzioari dagokionez, atzerapenez bada ere, Kontsortzioak inbertsio handiak gauzatu ditu; ordea, ezinbestekoa dirudi finantzaketa osagarria eskuratzea Plana amaitu eta egindako inbertsioak eraginkorrak izan daitezen.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

2011-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	GABEA	% EXEK.
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3.	3.495	-	3.495	3.393	2.188	1.205	97
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.4.	-	14.976	14.976	9.643	7.848	1.795	64
8.- Finantza aktiboak .....		200	1.562	1.762	6	6	-	(* )3
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>3.695</b>	<b>16.538</b>	<b>20.233</b>	<b>13.042</b>	<b>10.042</b>	<b>3.000</b>	<b>(* )70</b>
<b>GASTUAK</b>								
1.- Langileria-gastuak .....	A.5.	1.046	50	1.096	1.072	1.016	56	98
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb. ....	A.6.	2.415	-	2.415	2.286	972	1.314	95
2.- Finantza gastuak .....		32	-	32	27	27	-	84
4.- Transferentzia arruntak .....		8	-	8	5	5	-	63
6.- Inbertsio errealak .....	A.4.	64	16.488	16.552	10.320	8.334	1.986	62
8.- Finantza aktiboak .....		10	-	10	6	6	-	60
9.- Finantza pasiboak .....		120	-	120	120	120	-	100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>3.695</b>	<b>16.538</b>	<b>20.233</b>	<b>13.836</b>	<b>10.480</b>	<b>3.356</b>	<b>64</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>(794)</b>			

(\* ) Exekuzioaren % kalkulatzekoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA		Euroak milakotan		
	ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOBR./ BALIOG. ORDAIN.	AZKEN ZORRA
Zordunak .....	A.3.	5.708	-	4.876
Hartzekodunak .....		5.334	1	5.333
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>1</b>	

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan	
Kitatutako eskubideak .....			13.042
Aitortutako obligazioak .....			13.836
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>			<b>(794)</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA</b>			<b>1</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>			<b>(793)</b>
Finantzaketa desbideratzeak .....			362
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak .....			159
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>			<b>(272)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 11.1.1ean .....	1.650
Aurrekontuaren emaitza .....	(793)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak .....	(437)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 11.12.31-N</b>	<b>420</b>
Diruzaintza .....	876
Aurrekontuko zordunak .....	3.832
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....A.7	447
Aplikatzeko dauden bermeak eta ordainketak.....	32
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(3.356)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(658)
Kaudimen-gabez. zuzkidura .....	(753)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 11.12.31-N</b>	<b>420</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina.....(A.4)	505
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>(85)</b>
<b>ZORPETZEA 11/12/31n</b>	<b>2.490</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	Eranskina 11 URTEA	10 URTEA	PASIBOA	Eranskina 11 URTEA	10 URTEA
<b>IBILGETUA</b>	<b>44.380</b>	<b>34.147</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>	<b>41.938</b>	<b>33.187</b>
Erabilera orokorrekoa.....	41.691	31.463	Ondarea .....	2.980	2.980
Ibilgetu ezmateriala.....	1.731	1.659	Aurreko ekitaldietako emaitzak...	30.208	16.622
Ibilgetu finantzarioa.....	957	1.023	Galera-irabaziak.....	A.8 8.750	13.585
Ibilgetu finantzarioa.....	1	2			
<b>ZORDUNAK</b>	<b>3.526</b>	<b>5.797</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>	<b>2.370</b>	<b>2.610</b>
Aurrekontuzkoak.....	3.832	5.709			
Aurrekontuz kanpokoak .....	A.7 447	404	<b>HARTZEKOD. EPE LABURRERA</b>	<b>4.506</b>	<b>5.558</b>
Kaudimengabez. zuzkid.....	A.3 (753)	(316)	Aurrekontuzkoak.....	3.356	5.334
			Aurrekontuz kanpokoak .....	A.7 658	224
<b>FINANTZA KONTUAK</b>	<b>908</b>	<b>1.411</b>	Epe laburreko maileguak.....	120	-
Aldi bateko finan. inberts.....	22	16	Ordaintzeko fakturak .....	A.7 372	-
Aplikatzeke dauden ordainketak.	10	-			
Diruzaintza .....	876	1.395			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>48.814</b>	<b>41.355</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>48.814</b>	<b>41.355</b>

2011-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA				Euroak milakotan	
GASTUAK	2011	2010	SARRERAK	2011	2010
Langileria-gastuak.....	1.074	1.021	Negozio zifr. zenbateko garbia .....	3.362	3.647
Amortizaziorako zuzkidura.....	87	87	Jasotako transf. eta diru-lag.....	9.643	13.567
Kaudimengab. zuzkid. aldak. ....	437	199	Bestel. kudeaketa sarrerak .....	29	8
Kanpoko zerbitzuak.....	2.655	2.303			
Emandako transf. eta dirul. arruntak....	5	2			
<b>USTIAPENAREN MOZKINA</b>	<b>8.776</b>	<b>13.609</b>			
Finantza gastuak	27	24	Finantza sarrerak	-	-
<b>FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>EMAITZA FINANTZARIO NEG.</b>	<b>27</b>	<b>24</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK</b>	<b>1</b>	<b>-</b>	<b>AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIKO MOZKINA</b>	<b>8.750</b>	<b>13.585</b>			





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOAK

Dokumentazioa aurkeztu eta alegazioak egiteko, “2011ko Busturialdeko Ur Partzuergoaren fiskalizazio-emaizak” dokumentuari buruz, honen bidez, hurrengo alegazioak aurkezten ditut:

### II.1.2. ATALA

“Kontu-hartzailetzaren funtzioak (kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontu-gestioa nahiz kontabilitatea barnean kontrolatu eta fiskalizatzea) ez dira garatzen” baieztapenari buruz, errealtatearekiko egokiagoa litzateke behar bezala ez direla garatzen aipatzea. Ildo horri eutsiz, Partzuergoko estatutuek kontu-hartzailetzaren funtzioa zehaztasunez ez aipatu arren, egia da idazkariak lan hori bere gain hartzen duela eta idazkaritza-kontu-hartzailetzaren lanean sartuak daudela ulertzen da. Horrez gain, gure iritziz aipatu beharko litzateke ez dela modu egokian eskaintzen estatutuek Idazkaritza, presidenteak izendatu ostean, Partzuergoan dagoen Udaleko idazkari batek gauzatzea aurrez ikusten baitute. Hala, Partzuergoaren langileen artean ez dago lanpostu hori. Gaur egun Partzuergoa egoera zuzentzen saiatzen ari da eta, horretarako, idazkari-kontu-hartzailearen lanpostua sortu nahi du, beraz, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekin Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetarako Zuzendaritzari kontsulta egin dio.

Diruzaintzaren lanei dagokienez, dokumentuaren esanetan, lan-kontratuko langileek egiten dituzte eta, ondorioz, ez da araudia (EPOEren bigarren xedapen gehigarria) betetzen. Izan ere, lanpostu hori Tokiko Udalbatzetan gaitasun nazionala duten funtzionarioentzat gordetzen da. Dena den, gogorarazi behar da 1732/1994 Errege Dekretuak, uztailaren 29koak, gaitasun nazionala duten Tokiko Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak hornitzeari buruzkoak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, bestalde, indarrean EPOEren garapen-neurriak onartzen ez diren bitartean, Idazkaritza bigarren edo hirugarren mailakotzat jotzen den udalerrietan, diruzaintza-funtzioen administrazio-erantzukizuna Udalaren funtzionario bati eman dakiokela, legez aurrez ikusitako baldintzetan.<sup>1</sup>

### II.1.3. ATALA

Bidalitako dokumentuari jarraiki, “Sukarrieta-EDAR Lamiaran kolektoreari dagokion obra, 2008. urtean 9,2 milioi eurotan esleitutakoa, aldatu egin zen eta obra osagarriak (tunelaren iparraldeko ahoan eta araztegiko irteeran sarbideak gaitzea) egin behar izan ziren. Horiek 2011. eta 2010. urteetan obra nagusiaren eskaintzaileari esleitu zitzaizkion 715.834 eurotan eta 3,6 milioi eurotan, hurrenez hurren. Horregatik guztiarengatik, obren kostua azkenean 14,8 milioi eurokoa izan zen, hau da, esleipen-zenbatekoa baino %61 gehiago. Desbideratzearekin kontratazio-araudiaren lizitazio-printzipioak urratu ziren, bai kontratuaren xedea, baita kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desnaturalizatu baitziren.

<sup>1</sup> Kongsortzioaren plantilla 2011n lan-kontratuko langileek osatzen zuten eta funtzionario plaza bakar bat zegoen, titularra 2010az geroztik erretiroa hartuta egoteagatik.

Gainera, 2010. urtean esleitutako obra osagarriak data hori baino lehenago hasi ziren gauzatzen, obra nagusiaren garapenak hala eskatzen baitzuen (A.10. eranskinean B1 urritasuna)”.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak xedatutakoaren arabera, ados gaude nagusia hedatzeko edo osatzeko prestazioak, bereiziak erabiliko direnak, izanik, kontratu berria egitea beharrezkoa dela eta ez jatorrizko kontratua aldatzea. Aurrekoaren ildotik, BUPk kontratu nagusiarekiko bereizita kontratu berria eraginkortasunez legeztatu zuen.

Baina kasu honetan bidezkoa zen prestazioak kontratistarekin publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidetik kontratatzea -bide hori aukeratu zen-, kontratu zehatzetarako SPK Lk 155 b) eta 188 b) artikuluetan xedatutako baldintzak betetzen baitziren. Zehatz-mehatz esanda, aipatu xedapenek obra-kontraturako honakoak zehazten dituzte: “Obra osagarriak direnean eta horiek proiektuan eta kontratuan azaltzen ez direnean,..., baina ustekabeko gorabeherarengatik proiektuan edo kontratuan deskribatutako moduan obra aldatu gabe gauzatzeko beharrezkoak direnean, horiek egitea kontratista nagusiari eskatzen bazaio... jatorrizko kontraturako zehaztutako prezioen edo, hala badagokio, prezio kontrajarrien arabera, betiere Administrazioari eragozpen handiak sortu gabe obrak teknikoki edo ekonomikoki jatorrizko kontratutik ezin badaitezke bereiz edo bereizgarriak izanik, burutzeko zorrozki beharrezkoak badira, obra osagarrien zenbateko metatuak kontratuaren jatorrizko prezioaren %50 gainditzen ez badu. Aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten gainerako obra osagarrietan kontratazioak independentea izan beharko du”.

Beraz, “obren kostua azkenean 14,8 milioi eurokoa, hau da, esleipen-zenbatekoa baino %61 gehiago izateari eta, ondorioz, desbideratzeak kontratazio-araudiaren lizitazio-printzipioak urratzeari buruz” HKEEk egindako baieztapenari dagokionez, gure iritziz gertaeren errealitate objektiboa ez duela islatzen azaldu nahi dugu. Horretarako, honakoan oinarritzen gara: HKEEk bi kontratu desberdinetan ziurtatutako zenbatekoak batzen dituela eta baten jatorrizko esleipen-zenbatekoarekin alderatzen duela. Nahiz eta obrak kontratista berdinak gauzatu, argi eta garbi bi kontratu desberdin dira, oso jarduera ezberdinen gainean eginak.

Gure iritziz, errealitateari ondorengoa hobeto egokituko litzaioke:

1. Jatorrizko lehiaketaren obrak 9,2 milioi eurotan esleitu ziren eta aldatu behar izan ziren, kontratuaren prezioa 715.834 euro-tan (%7,78) gehituz. Azkenik, kontratu honen obrak orokorrean 10,9 milioi euro, hau da, esleipen-prezioaren %18,48 gehiago ordainduta likidatuta ziren. Hazkuntzan BEZren zerga-tasa aldatzearen ondorioz izandako prezio garestiagoa sartuta dago.
2. Lizitazioaren eta, beraz, kontratu nagusiaren jarduerak proiektatu, lizitazioan jarri eta esleitu ondoren, Kantauriko Ur Konfederazioak Lamiaran hondakin-uretarako araztegiaren jatorrizko proiektuan (BUPk gauzaturako proiektua egiteko oinarri bezala erabili zen) oso aldaketa garrantzitsuak sartu zituen. Aldaketen ondorioz, 3,6 milioi euroko obra osagarriak egin behar izan ziren. Izan ere, horiek egin gabe ezinezkoa zen jarduera nagusiak garatzea. Azkenean, obra osagarriak 4,04 milioi eurotan (%10 gehiago) likidatu ziren.

